



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO UZTAILAREN 6AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Irati Ozaita Azpiroz

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Kontuhartzailea: Lierni Muñoa Salaberria

Ibarran 2018ko uztailaren 6an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

27. FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINTZEA.

Gestión Deportiva Loiri S.L enpresak 2018ko ekainaren 28an 27. Zenbakidun faktura aurkeztu du Oporrak Euskaraz Zerbitzuaren kostuaren %80aren ordainketa eskatuz.

Fakturaren azterketa egin ondoren, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak, aho-batez harturiko erabakia

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Gestión Deportiva Loiri S.L enpresak aurkezturiko 27. faktura (Oporrak euskaraz zerbitzuaren %80 kostua) 20.240 eurotako (‘BEZbarne) kopuruduna.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Kontuhartzaitzari kopuruaren ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitzari.

BIGARRENA:

EGI ERAIKINEAN HUSTUKETA ETA SEGURTASUN BITARTEKOAK HOBETZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratazio mahaiak, GOITU ERAIKUNTZAK enpresari 53.759,69 €ko prezioan (BEZ barne) Egi eraikinean hustuketa eta segurtasun bitartekoak hobetzeko kontratua esleitzea proposatu zion Tokiko Gobernu Batzordeari.

2018ko ekainaren 22an eginiko Tokiko Gobernu Batzordean GOITU ERAIKUNTZAK enpresari eskatu zitzaion aurkeztea lizitazio honetako Plegu Administratiboaren 32.2 artikulua baitan kontaktuan esleitzeko eskatzen zen dokumentazioa.

GOITU ERAIKUNTZAK enpresak aurkeztu ditu eskatu zitzaizkion agiri guztiak.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Esleitzea GOITU ERAIKUNTZAK enpresari Egi udal eraikineko hustuketa eta segurtasun bitartekoak hobetzeko obra kontratua, 53.759,69 € (BEZ barne).

BIGARRENA: Jakinarazi GOITU ERAIKUNTZAK enpresari kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharko dituela:

- Enpresa ordezkatzan duen pertsonaren identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten agiriak.

HIRUGARRENA: Kontratu sinatzea GOITU ERAIKUNTZAK enpresarekin.

LAUGARRENA: Erabaki hau eta kontratuaren formalizatzea argitaratzea Udalaren web orrian, kontratatzailearen profilan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA

2018KO EKAINAREN 26AN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK: KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMAN

3.1 KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMAN

Ikusita, 2018ko apirilaren 13ko Tokiko Gobernu Batzordeak 2018an kirol arloan emango diren diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartu zituela.

Ikusita, behin oinarriak Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 13an amaitu zela.

Ikusita, epe horretan honakoek aurkeztu zituztela eskaerak:

1. Urtekoak

Gimnasia erritmikoa Belabieta Kluba (sarr. errg. 982)
Sendi ekintza pilota eskola (sarr. errg. 985)
Lauburu K.E. Ibarra (sarr. erreg. 986)
Ibarra Sokatira taldea (sarr. Erreg. 969)

2. Puntualak

Ibarrako kirol elkarteak (sarr. errg. 987)
Ibarrako Sokatira Taldea (sarr. Erreg. 968)

Ikusita, Eskaerak aztertuta, batzuek akatsak zituztela eta, 10 eguneko epea eman zitzaiela elkarteei akatsak zuzentzeko.

Ikusita, akatsak zuzenduta, eskaeren balorazioa egiteari ekin zitzaiola oinarrietan ezarritako irizpideak aplikatuz, eta hortik honako puntuazioak eratorri zirela

1. Urtekoak

Gimnasia erritmikoa Belabieta Kluba: 437,25 puntu
Sendi ekintza pilota eskola: 215 puntu
Lauburu K.E. Ibarra: 763,5 puntu
Ibarra Sokatira taldea: 157,75

2. Puntualak

Ibarrako kirol elkarteak: 50 puntu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Sokatira Taldea: 35 puntu

Ikusita, behin puntuazioa edukitakoan, oinarrietan zehaztutako formula aplikatu zela puntuazioa diru bihurtzeko.

Kontuan harturik, hainbat elkartek diru kopuru zehatz bat eskatu zutela eta legeak ez gaituela baimentzen diru kopuru hortatik haratago ematera.

2018ko ekainaren 26an izandako Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Ematea honako kirol arloko diru-laguntzak:

1. Urtekoak

Gimnasia erritmikoa Belabieta Kluba: 5.000,00 €
Sendi ekintza pilota eskola: 5.374,00 €
Lauburu K.E. Ibarra: 31.026,00 €
Ibarra Sokatira taldea: 8.300 €

2. Puntualak

Ibarrako kirol elkartea: 975,00 €
Ibarrako Sokatira Taldea: 1.135,62 €

BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza horiek 1 0000.481.341.00.00 diru partidatik ordaintzea bi alditan: lehengo %60 Tokiko Gobernu Batzordea akordioa hartzerakoan eta gainerako %40 diru-laguntzaren justifikazioa onartzerakoan.

HIRUGARRENA.- Akordio hau jakinaraztea interesatuei (E), eta kontu-hartzailletza sailari (E).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA

KULTURA ARLOAN 2018. URTERAKO EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIAREN ONARPENEA

Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Tokiko entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa arautzen duena) 126. artikulua baitan Gobernu Batzorde honek urgentziako kasua deklaratu du Kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen oinarriak eta deialdiaren onarpena egiteko (ikusirik Batzorde informatiboaren irizpenik ez dagoela diru-laguntza hauen deialdia onartzeko)

Ikusirik deialdia egitea ezin bestekoa dela (diru-laguntzak emateko epea luzatu egiten baita eta interesatuen interesa ikusita) eta Kultura arloko Batzorde informatiboa egitea ezinezkoa izan dela, deialdia onartzeko urgentzia deklaratu da.

Ikusirik 2018. urterako emango diren diru-laguntzen deialdia, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Tokiko entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa arautzen duena) 126. artikulua baitan urgentziako egoera deklaratu kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen deialdia onartzeko.

BIGARRENA: Onartzea kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen deialdia (I eranskinean jasoak)

HIRUGARRENA: Kultura eta gazteria batzordeari jakinaraztea ospatzen den lehen batzordean egoera honen berri ematen duela Tokiko Gobernu Batzordeak

LAUGARRENA: Jakinaraztea Kultura eta Gazteriako batzordekideei 2568/1986 Errege dekretuaren 126. Artikulua baitan ospatzen den hurrengo Udalbatzan puntu hau barneratzea eskatu behar dutela Udalbatzak deklaratu den urgentziaren inguruan eztabaida dezan fiskalizazio eta kontrol eskumena beregain baitu.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri eman Kultura eta Gazteria teknikariari eta Kontuhartzaitzari.

SEIGARRENA: 2018. Urterako emango diren diru-laguntzen deialdia GAOn argitaratzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BOSGARRENA

ONARTZEA IBARRAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA

7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan “Udallerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake” adierazten du.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen du: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta Tolosaldeko Komunikazio taldea S.M-k Ibarra herrian Euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu helburu nagusi gisa eta Ibarra herria eskualde mailako euskalgintza proiektuan barneratuko du herritarren parte-hartzea eta genero berdintasunaren alde lan eginez komunikazio hedabide bezala.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dit; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

Guzti hau ikusirik, Ibarra Udalak Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M rekin lankidetz hitzarmen bat sinatuko du. Hitzarmen hau lege-arau hauen babesean ematen da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Ibarra Udalak 2018ko maiatzaren 31an egindako Udalbatzan 2016-2019 urteetarako dirulaguntza planaren aldaketa puntuala onartu zuen (GAO 115, 2018ko ekainaren 15ekoa) Bertan Euskara normalizazioarako euskara arlotik bideraturiko diru-laguntzen barnean; eskualdean euskarazko komunikabideak izateko diru laguntza lerroaren baitan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurrikusten zuen diru-laguntza zuzena eskualdean euskaraz ari diren komunikabideak sendotzeko.

Guztia aintzat harturik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Tolosaldeko Komunikazio Taldea S:M-ri 22.000 eurotako diru-laguntza ematea eskualdean euskaraz ari diren komunikabideak sendotzeko helburuarekin.

BIGARRENA: Diru-laguntza, .10000.481.334.00.00218 partidatik finantziatuko da eta hitzarmenean jarritakoaren arabera emango da.

HIRUGARRENA: Onartzea Tolosadeko Komunikazio Taldea S.M eta Ibarra Udalaren artean lankidetzat hitzarmena sinatzea (II. Eranskina)

I ERANSKINA

IBARRAKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA ELKARTE ETA ERAGILEEI 2018. URTEAN GARATUKO DITUZTEN JARDUERA ETA EGITARAUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.

Hitzaurrea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarrienak (TAOL), III. Kapituluko 25. eta ondorengo artikuluetan, udalen eskumenen artean esleitzen ditu Ondare Historiko-artistikoen eskumena eta kulturako, aisialdiko eta liburutegi publikoko jardueren edo instalazioena.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo diru-laguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko martxoaren 29ko GAOko 57. zenbakian argitaraturik dagoen 2016-2019 urte bitarterako Ibarra Udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egiten da honako deialdia.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzekoan.

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua 2018. urtean Ibarra kultura arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauak arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden 2016ko martxoaren 29ko GAOko 57. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren diru-laguntzen 2016-2019 Plan Estrategikoa¹, 2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean.

2. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokako erregimenean izango da eta printzipio hauen arabera egingo da: Publizitate, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik eza. Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa 12.000,00 eurokoa da 1 0000.430.334.00.00 2018 partidan kargatuko dena, eta 8.000,00 eurokoa 1 0000.430.334.00.00 2019 partidan kargatuko dena.

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio prozeduran lortutako puntuazioa.

Zenbateko hori benetakotzat joko da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak, aldez aurretik justifikazio-txostena egingo balu, diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren kultur jarduera edo programak, bai eta xede-talde gisa ibarrako herritarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

- a) Kultur jarduerak: Urteko programa
- b) Kultur jarduerak: Jarduera zehatzak.

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege- edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten dagozkion aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

5. Onuradunak

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntza 4. artikuluan jasotzen diren jarduera-programaren bat garatu nahi eta oinarri hauetan zein diru-laguntza gaietan aplikagarria den araudian aurreikusitako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten Ibarran egoitza edo ordezkaritza iraunkorra duten diru irabazi asmorik gabeko izaera duten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak.

Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan inskribatuta dauden Ibarran errotutako eta deialdi honetako jardueretara eskainitako erakundeak. Horrez gain, diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan xedatutako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte.

Pertsona fisiko edo juridikoek osaturiko taldeek, publiko nahiz pribatu izan, eta izaera juridikorik ez badute, baldintza hauek bete beharko dituzte:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa aginpiderekin, aplikatuko baitzaio 38/2003 legearen 11. artikulua.

b) 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan tipifikatutako diru-laguntzaren itzulketa onartzeko edo kitatzeko preskripzio-epea amaitu arte taldea ez desegiteko baldintza beteko dutela adierazten duen zinpeko aitortza.

6. Baztertuak

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

a) Epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak.

b) Lehiaketa eskaera egin dutenak, edozein prozeduretan kaudimengabeak jo direnak, lehiaketan egonik esku-hartze judizialaren mende daudenak edo lehiaketa legearen arabera ezgaituak izan direnak, beti ere sententzian jasotako inhabilitazio epea amaitu ez bada.

c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan direnak sartuta daudenean kontratatuzko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikaziozkoa den legeria espezifikoen arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautapenezko karguren bat izatea.

e) Zerga obligazioak edo gizarte segurantzari buruzkoak ez betetzea, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematerakoan.

f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharretan egonik, ordainketak ez egitea (Diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa).

i) Ebazpen irmo bitartez diru-laguntzak jasotzeko zigortua izatea diru-laguntzen Lege Orokorra edo Zergei buruzko legeari jarraiki.

j) Entitatearen ordezkariaren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.

k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarako Udalarekin dituzten zorreatatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

l) Beren jardueraren bitartez, diskriminazioren bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak .

7. Onuradunen eginbeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

- a) Dirulaguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.
- b) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarako udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko irizpideen 32.1 artikulua araberara, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

1. Ibarako Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

- c) Diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.
- d) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.
- e) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontrolako organoek, nazionalak nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.
- f) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.
- g) Eskura izango ditu: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplikatu dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- h) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.
- i) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarako udalaren diru-laguntza jasotzen duen programa, jarduera edo ekintzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.
- j) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero, jasotako dirua itzuli egin beharko du.
- k) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz, diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.
- l) Diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeke proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeke, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatzea beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauarekin.

- m) Diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarako Udalak finantzatzen dituela egoki zabaltea bidezko publizitatea emanez, baldin eta betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean exijitu bada.
- n) Jasotako funtsak itzultzea, Ibarako diru-laguntzen ordenantza orokorrean xedatutako kasuetan.

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta 30 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- a) Diru-laguntzarako eskari-orri normalizatua behar bezala beteta.
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- c) Entitate edo elkartearen estatutuen fotokopia (salbu eskatutako dokumentuak jardunean dagoen administrazioaren esku baldin badaude jada. Kasu horretan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.5 artikulua f puntuan adierazitakoarekin bat egin dezake eskatzaileak, betiere agiri horien aurkeztutako edo emititutako data eta organoa zehazten bada eta dagokion prozedura amaitu denetik 5 urte baino gehiago pasa ez badira).
- d) Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- e) Eskaera besteren baten izenean eginez gero, eskatzaileak duen ordezkariaren egiaztagiria, bai elkarte edo taldeak hartutako akordio bidez, bai ahalduntzearen bidez sozietateen kasuan.
- f) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko ziurtagiria.
- g) Instituzio, erakunde eta abarrei eskatutako diru-laguntzen edo, hala bada, jasota dituzten haien aitortpena.
- h) Diru-laguntza xede izango duen programaren edo ekintzaren txostena zehaztuta.
- i) Programaren edo ekintzaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.
- j) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria (edo hala badagokio, eranskinean dagoen agiria, dagokion moduan beteta).
- k) Zinpeko aitortpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batetan sartuta ez dagoela adierazteko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutakoak izango dira.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da diru-laguntza horren emakida arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritziaren arabera izatera baitu diru-laguntza honek ere.

Eskabideak eta informazioa non eskuratu: Benito Izagirre Kultur Etxean (Euskal Herria kalea, 44), www.ibarra.eus edo 943-670399 telefonoan.

10. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza ematea lehia-erregimenaren bidez erabakiko da; kasu bakoitzean finkatutako irizpideen arabera, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzen duen diru-laguntza kopurua soilik hautatuko da.

Diru-laguntzak ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak:

50 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Proposatutako programaren gizarte-proiektzioa eta bertan beste erakunde batzuek duten inplikazio-maila. (10 puntu)
2. Garatzen den kultur arloan programak euskal kulturari zer ekarpen egiten dion. (8 puntu).
3. Euskararen erabilera sustatzen duen programa izatea. (8 puntu)
4. Antzeko proposamenik ez egotea. (2 puntu)
5. Kolektibo berezietarako jarduerak: 3. adina, ezinduak, etorkinak, etab. (8 puntu)
6. Berdintasuna sustatuko duten programak. (8 puntu)
7. Diruz lagundu beharreko jarduera zehatzek ahalik eta gehien zabaltzea Ibarra herriaren izena eta irudia. (6 puntu)

b) Erakunde eskagilearen ezaugarriak:

30 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Erakundeak erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna. (10 puntu)
2. Zuzenean ukituriko pertsona kopurua (matrikulak, lizentziak,...). (20 puntu)

c) Erakundearen finantza-baliabideak:

20 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Programaren diru-sarreraren eta gastuaren aurrekontua eta finantzatzeko tasa. (10 puntu)
2. Udalak ematen duen diru-laguntzaz gain, beste finantzaketa iturriak izatea: erakunde publikoak, babesleak,... (10 puntu)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diruz laguntzekoak izan daitezkeen beste proposamen batzuen programarekin bat ez datozen aldetik izaera soileko diren proiektuak edo elkarteak aurkezten direnean, irizpide nagusia izango da diru-laguntza ematea ziurtatuz programa edo proiektua irizpide hauen arabera gauzatuko dela: Aurrekontuen bideragarritasuna, jarduerarako aurreikusitako defizita, eta hala badagokio, aurreko urteetan jarduera bererako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

11. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako organo eskuduna Kultura eta Gazteria Batzordea izango da.

Aipatutako organoak proposamena dagokien balizko organoei aurkeztuko die emandako diru kopurua kontutan hartuz:

- 1.- 1000 eurotik beherako diru-laguntzetan organo eskuduna zinegotzi eskuduna izango da.
- 2.- 1000 eurotik gorako diru-laguntzetan organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Organo horrek Tokiko Gobernu Batzordeari aurkeztuko dio proposamena. Erabakitzeko proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:

- Eskaeren ebaluazioa.
- Eskatzaile-zerrenda, diru-laguntza jasotzeko proposatuko direnena.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.

Prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzeko beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, Laguntza kopuru bat aukeratuko da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.

12. Ebazpena

Prozedura hori eskumena duen organoak (11. atalean adierazitakoa) ebatziko du. Epea bi hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta organoak berak data atzeratzen ez bada aurrekontu bitartekoak direla eta.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorrak 25.5 art.an ezarritakoari jarraiki. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 24. art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

- * Onuradunaren identifikazio datuak.
- * Diru-laguntzaren xedea.
- * Emandako gehienezko zenbatekoa.
- * Diruz lagunduko jarduera burutzeko eta zuritzeko epea.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko bideratu dela eta diruz lagundutako jarduera burutzeko.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharra aitortzeko eta likidatzeko.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako dirulaguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

1. Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:
 - a. Programaren edo proiektuaren izena.
 - b. Dirulaguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
 - c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.
 - d. Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
 - e. Finantza baliabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste dirulaguntza batekin edo onuradunekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.
 - f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaielen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
 - g. Ondorioak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:
 - a. Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.
 - i. Erosketa tiketak edo ordainagiriak onartuko dira, 20,00 € baino txikiagoak badira eta guztira jasotako diru-laguntzaren %10 gainditzen ez bada.
 - b. Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.
 - c. Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako "jaso agiria", edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.
3. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak.
4. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kitatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- *Urteko programazioa*: 2019ko otsailaren 22a.

14.2.- *Ekintza puntualak*: Ekintza gauzatu eta 45 egun naturaleko epean justifikatuko da.

2019ko lehiaketaren ondorioz jaso beharrekoa ez da aurreko urtekoa zuritu arte jasoko.

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

15.1.- *Urteko programazioa*.

Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru-laguntzaren %70 ordainduko zaio. Gainerako %30 jarduera edo egitasmoaren justifikazioari onespena ematen zaionean ordainduko zaio.

15.2.- *Ekintza puntualak*.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Hiru mila eurotik beherako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntzaren %100 diru-laguntzaren onarpen ebazpenarekin batera ordainduko zaio. (
- b) Hiru mila eurotik gorako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntza onarpen-ebazpenarekin batera %70 ordaindu da. Gainerako %30 ekintzaren edo proiektuaren justifikazioa onartzen denean ordainduko da.

16. Emandako diru-laguntzen aldaketak.

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du, eta behin-betiko kitapenaren aldaketa suposatuko du, eta bere kasuan, jasotako dirua itzultzera behartuko da.

17. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Ibarako Udalaren lankidetzara adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaila izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

18. Kontrol eta jarraipena.

Dirulaguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Dirulaguntzen finantza kontrola Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarako Udaleko kontuhartzailletza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

19. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren itzulketa araubideari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

20. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

21. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren araututakoa kontuan izango da.

22. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

II. ERANSKINA

IBARRAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M-ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarra udalarekin, 2018ko ekainaren 29an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Mikel Agirrezabala Ezkurdia, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko Idazkari Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echavek



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta bestetik, Xabier Saizar Ingidua jauna, Tolosaldeko Komunikazio Taldearen elkarteko lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako San Esteban Auzoan 20an duena ; IFKa: B-75085050.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkartizan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M elkartearen izenean eta ordezkartizan, Lehendakari gisa, 2015eko martxoaren 4ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M entitateak, Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez sarrera erregistroko zenbakia.1196. , diru-laguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz. Memoria honek 711.192 euroko aurrekontua du, diru-laguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

- **Tolosaldeko Ataria prentsa**: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik
- **Ataria irratia**: 24 ordutan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko
- **Internet: urte osoan atarian.eus web guena eguneratu**, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Diru-laguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debekuausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorriz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den diru-laguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarako Udalaren 2018ko udal aurrekontuan, 10000.481.334.00002018. partida agertzen dela, 22.000 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen diru-laguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta Tolosaldeko Komunikazio taldea S.M-k Ibarako herrian Euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu helburu nagusi gisa eta Ibarako herria eskualde mailako euskalgintza proiektuan barneratuko du herritarren parte-hartzea eta genero berdintasunaren alde lan eginez komunikazio hedabide bezala.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. Artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dit; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalen eta TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerriaren barruan.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Tolosaldeko Ataria prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik
- Ataria irratia: 24 ordutan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko
- Internet: urte osoan atarian.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarra Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan diru-laguntza baten bidez. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 22.000 eurokoak izango dira, 10000.481.334.00.00218 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarra udalak egindako balizko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakenar.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarako Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera III: kapituloa

Bosgarrena.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarako Udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarako Udalaren III kapituluan diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa diru-laguntzaren % 75a izango da, eta gainontzeko % 25a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarako Udalak beharrezkotzat eta interesgarriztat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena:-Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Diru-laguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik erortzen den guztiari dagokienean.

Hamalagarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabosgarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarrako Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamaseigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarrako Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplika daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemezortzigarrena.- Baimentzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamabost direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut